



Eusko Jaurlaritzak 2006an Erabilera Publikokoa zela adierazi zuen, 2004an Donostiako Hiritar Merezimenduaren Domina jaso zuen eta 2009an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen Saria irabazi zuen Gehitu Elkartek (Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen Elkarteak) 2010ko Zilarrezko Gehitu saria honakoari ematea erabaki du:

CEAR, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea.

Baztertuen zioarekin bat egiteak goratu egiten du ekintza horretan diharduena. Lgtb pertsonen diskriminazioa eta bazterketa soziala jasan izan ditugun eta oraindik jasaten ditugun bezalaxe, pertsona behartsuak, baztertuak, errefuxiatuak, aberrigabeak, beren legeri nazionaletan onartzen ez dituztenak, ondasunak eta herritartasuna kendu dizkietenak dira agian diskriminazioaren arazoa alde gogorrenetik ezagutzen dutenak. Pertsona horiek, nolahi ere CEAR Elkartean, 1979an sortu zenetik, kontsolamendua eta ulertzea aurkitzeaz gain lankidetzak praktikoa ere aurkitu dute, bazterketarik gabeko munduarekin bat egin duten munduko herrialdeek premiarik handiena duen jendearekin duten konpromiso horrekin aurrera egin dezaten.

Baina ez da bazterketa egoera horietan agertu duen elkartasuna bakarrik izan orain CEAR Elkarteari 2010eko Zilarrezko Gehitu Saria emateko kontuan izan duguna. Europak, duen tradizio juridiko eta politikoagatik eta mundu osoan eragiteko duen gaitasunagatik, lehenetsuneko posizioa du pertsona guztien giza eskubideak lortzeko lan horretan aurrera egiteko, eta bide horretatik, aitzindari izan behar du beren herrialdeetan arrazoi zibil eta politikoengatik edota giza krisialdiekin zerikusia duten arrazoiengatik jazarpena bizi duten pertsonentzat asiloa eskatzen. Ez dago inolako zalantzarik, lgtb pertsonen bazterketa juridiko, politiko eta soziala benetako gertaera dela mundu osoan (eta hori egiaztatzeko ikusi besterik ez dago homosexualitatea delitu dela 80 herrialde baino gehiagotan eta horietako 7 direla heriotza-zigorra ezartzen diotenak). Oraingoan oso gutxi dira egoera horri konponbidea bilatzen hasi eta sexu arrazoiengatik beren herrialdeetan jazarpena bizi duten pertsonen asiloa ematen dieten Estatuak. Baina guztiontzat mundu bidezkoagoa eta hobea lortzeko lan horretan ezinbestekoa den ekintza-bide hori behin eta berriro errebindikatu du CEAR Elkartek bere ibilbidean.

Horregatik, lgtb asiloaren zioarekin bat egiteagatik, maitatzeko askatasunak mundu honetako lekuren batean, jatorrizkoa ez den besteren batean bada ere, babesa behar duela pentsatzeagatik, diskriminaziorik gabe pertsona guztien duintasunaren alde hainbeste lan egiteagatik, GEHITUK oraingoan CEAR Elkarteari eman nahi dio 2010eko ZILARREZKO GEHITU saria.

